

● BALIABIDEAK:

Gure negozio-ereduan kontuan hartuko ditugun funtsezko baliabideak hurrengoak dira:

- **Baliabide fisikoei** dagokionez, gure aplikazio bera izango da eskuratuko dugun baliabide fisikoa.

Gure ezagutzak: Ikasketetan ikasitakoa izango dira gure ezagutzak.

- **Giza baliabideak** eta **baliabide intelektualekin** jarraituz, lehenik eta behin, taldeko bi kidek aplikazioa egingo dute, **informatika** klaseetan ikasitakoa praktikan jarri. Ondoren, taldeko kide denak, hau da, bostok, aplikazioaren kontrola izango dugu, eta gutxinaka-gutxinaka aplikazioaren xehetasunak hobetzeari ekingo diogu.



- **Finantza baliabideak:**

Gure enpresan erabakiak hartzeko izango ditugun diru-elementuak, hala nola salmentak, produktuen irabaziak eta egindako salmentak edo bazkideen edo akziodunen ekarpenak gure finantza baliabideak osatuko dituzte. Proiektu honi hasiera emateko, aplikazioa gure kabuz egingo dugu, beraz, ez dugu dirurik irionduko. Hala ere, aplikazioa ezagutzera emateko, hainbat ekintza egingo ditugu, hauetan 100 euro inguru inbertituko dira. Aitortu beharra dago, proiektu honetan ahalik eta diru gutxien gastatzen saiatuko garela, hortaz, sare sozialetan arrakasta dutenei dirua eman beharrean, laguntza eskatuko diegu, (helburua kaleko artistei laguntzea denez, badakigu laguntzeko prest daudela) gure aplikazioa jakitera emateko. Gainera, Gaztea Irratian zein Eitb telebistan agertuko gara gure aplikazioa aurkezteko, modu honetan, hainbat jenteren artean interesa piztuko da, eta gutxinaka gutxinaka gure aplikazioa ahoz aho entzuten hasiko gara.

